

Glossaria Vasco-Islandica-ren aurkezpen gisakoa

GIDOR BILBAO
(E.H.U.)

Bi helburu nagusi izan ditugu lan hau burutzean: batetik, XVII. mendean Islandian bale arantzuan ziharduten euskaldunek hangoekin zituzten harremanetan zera-biltzen hizküntzaeren berri zuzena ematen diguten eskuizkribu ezezagunegiak gaurko ikerlariak azter ditzaten erabilgarri egitea; eta bestetik, eskuizkribuon inguruan gaur arte egin izan den lan nagusi baina eskuragaitzegia, hots Nicolaas Gerardus Hendricus Deen-ek 1937.ean Leideneko Unibertsitatean *Glossaria Duo Vasco-Islandica* izenarekin irakurri zuen doktore tesia, ezagutaraztea.

Eskuizkribuen eta Deen-en lanaren garrantzia ulertzeko interesgarri iruditu zaigu José Ignacio Hualdek 1984.ean *Journal of Basque Studies in America* aldizkarian argitaraturiko lan bat ere berrargitaratzea; sarrera gisako berri bat, aurkezpen honen ondoren datorrena alegia, idazteko ere eskatu diogu helburu honekin ikerlari honi*.

Deen-en tesia latinez argitaratu zen 1937. urtean, egun haietan bai lanerako eta bai zabalkunderako izan zitzakeen muga guztiakin. Euskalarien artean ez zen beraz oso ezagun egin eta bere-berean berrargitaratzea pentsatu genuen horrenbestez hasieran, urte hartan Holandan egin zitekeena bere mugekin erakustearren; gero ere hau da gure asmoa, baina lana benetan erabilgarri izango bada ikutu batzuk eta noizbait ikutua baino gehiago egitea halabeharrezko iruditu zaigu. Latinezko testua euskaratzea izan da ziurrenik erabaki ikusgarrienetako bat; barka bekigu horrela euskalari bat baino gehiagorentzat Deen-en hitzak ulergarriago izango direla pentsatu izana.

Deen-en proposamen eta iruzkinak ez ditugula gure kritikaren galbahetik iragazi esan nahi dugu 1937. urtean Holandan egindako lana bere mugekin aurkeztu nahi dugula diogunean. Honenbestez berrargitalpen kritiko baten eskatuko genukeen oharrik gabe errepikatzen edota euskaratzen ditugu hemen, adibidez, besteak beste, I 193, I 201, I 288, I 310 edo I 385 sarreretan egindako iruzkinak, gaurko ikuspegi-tik okerreko nahiz hutsaltzat emango genituzkeenak. Ez ditugu zuzendu gabe utzi

* Eskerrak eman behar dizkiegu EHUko Filologia, Geografia eta Historia Fakultateko Koldo Mitxelena Bibliotekako langile den Lourdes Saenz del Castillori eskuizkribuen kopiak eskuratzeko beti bezain fin lan egin duelako, Rudolf P. G. de Rijk irakasleari Deen-en senideen berririk izateko asmotan hartutako nekeengatik, Joseba Andoni Lakarra irakasle eta argitaratzaileari unean uneko aholkuak eman eta ohi bezala zirikatzailerik lana egin duelako, inprimategiko langileei gure zuzenketak behin eta berriro onartu eta euren lana zintzo egin dutelako. Barka eske gatozkio irakurleari guk huts bat baino gehiagorekin ateratzen dugulako, zalantzarik gabe, lan hau.

nahi izan ordea I 244, I 467, I 482 eta II 134 sarreretan agertzen ziren irakurketak, eskuizkribuetan ez dakarrena irakurri eta okerreko ondorioetara bait garamatzate: I 244en *itbecalbu*a irakurtzen zuen Deen-ek eta *itsecalbu*a guk; I 467n *logall* Deen-ek —zalantzekin— eta *logale* guk —zalantzarik gabe—; I 482n *hardsatu* Deen-ek eta *hardsatsu* guk; II 134en *plamua* Deen-ek eta *plamuna* guk. I 518 eta I 519 sarrerak geureak dira eta ez Deen-enak, ahaztu egin bait zituen honek bere edizioan eskuizkribuan argi agertzen diren hitz hauek. Azkenik eskuizkribuari dagozkion beste ohar batzuk ere gehitu ditugu ondoko sarrera hauetan: I 67, 84, 117, 196, 218, 265, 279, 300, 464b, 514, II 39, 130.

Puntuazioa edota tipografiari dagozkion guztia askatasun osoz aldatu dugu gaurko ohituretara egokitzeko. Gaztelaniazko hitzak ere gaurko erara idatzi ditugu aipamenak ez zirenean; inprenta hutsak oharririk gabe zuzendu ditugu. < idatzi dugu guk Deen-ek ohitura guztien kontra > idazten zuen lekuan. Laburdurak ere aldatu ditugu batzutan, testuan zehar batasuna bilatzearren; ondoko hauek berriz bere-berean utzi ditugu gehienetan, nahiz eta jatorriz latinezkoak izaki ohizkoak izan ez, ulergarri bait dira: *vasc.*: euskaraz. *hisp.*: gaztelaniaz. *gall.*: frantsesez. *neerl.*: nederlandez. *catal.*: katalanez. a *pro* b: b-ren ordeza.

Behin (II 86) ~ idatzi dugu Deen-ek ixa antzeko gurutze handia zekarren lekuan. Gainerako laburdurak edo ohizkoak dira edo guk euskaratuta ematen dugun Deen-en aintzin solasean agertzen dira argituta.

Deen-ek berak aintzin solasean orripeetan ematen zituen oharrak orripeetan ematen ditugu guk ere, aurrean geuk ezarritako zenbakiak daramatzatelarik. Euskaratzailearen oharrei letrak ipini dizkiegu aurrean. Hitz zerrendeia dago kienean, Deen-ek bere tesiaren lehen argitalpenean testu barruan ematen dituen oharrak bi zutabetan ematen ditugu guk testu nagusiaren azpian; hauekin batera eskaini ditugu, taket artean, eskuizkribuari nahiz eskuizkribuaren irakurketei dagozkien euskaratzailearen oharrak. Hirugarren testu multzo bat osatzen dute orri barren-barrenean, hitzei eurei dagozkienetatik bereiztearren, aurrean izarra daramatela eman ditugun Deen-en nahiz euskaratzailearen gainerako oharrek.

Hitz aurkibideari buruz, ikus III. atala.

Bibliografia

Deen, N. G. H., 1937, *Glossaria Duo Vasco-Islandica*. Amsterdam. [Hemen berrargitaratua].

Guðmundsson, H., 1979, "Um þrjú basknesk-íslensk orðasöfn frá 17. öld", in Íngólfsson, G., 1979, *Íslenskt mál og almenn málfræði* 75-87. Reykjavík.

Hualde, J. I., 1984, "Icelandic Basque Pidgin", *Journal of Basque Studies in America* 5, 41-59. [Hemen berrargitaratua].

———, 1988, "Euskararen ume ezezaguna: Euskal Herriko bale arrantzaleen truke-hizkuntza", *Jakin* 48, 53-61.

Oregi, E., 1984, "Tres glosarios vasco-islandeses del s. XVII" in Huxley, S., 1984, *Los vascos en el marco Atlántico Norte. Siglos XVI y XVII*, 317-336. Donostia. ("Itsasoa: El mar de Euskalerra, su naturaleza, el hombre y su historia". E. Ayerbe-k zuzendutako bilduma, III. lib. Donostia.)

Eskuizkribuak

Egilsson, S., [Tertii cuiusdam glossarii quae reliqua sunt]. J.S. 284,8 eskuizkribua. National Library, Reykjavík.

[*Glossarium Prius (Vocabula Gallica) et Glossarium Alterum (Vocabula Biscaica alterius auctoris)*]. AM 987,4 eskuizkribua. Stofnun Árna Magnússonar á Íslandi (Árnagarði við Suðurgötu) fondoa, Islandiako Unibertsitatea, Reykjavík.